

# STAY FOCUSED

Rocío Agudo



## ■ MH + UPV/EHU · 2020-21

Arte proiektuak ezagutarazteko programa  
Programa de difusión de proyectos artísticos

## ■ Proiektuaren koordinazioa · Coordinación del proyecto

Luis M<sup>a</sup> Pascual (Centro Cultural Montehermoso Kulturunea)  
Arantza Lauzirika Morea (Facultad de BBAA de UPV/EHUko AEen Fakultatea)  
Edurne González Ibáñez (Facultad de BBAA de UPV/EHUko AEen Fakultatea)

## ■ Komisaritza · Comisariado

Cristina Arrazola-Oñate

## ■ Erakusketa · Exposición

Stay Focused · Rocío Agudo

## ■ Data · Fechas

2021eko apirilaren 23tik maiatzaren 23ra  
Del 23 de abril al 23 de mayo de 2021

## ■ Argitaratzailea · Edita

© Vitoria-Gasteizko Udala  
© Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

## ■ Argitalpenaren koordinazioa · Coordinación de la publicación

Cristina Arrazola-Oñate  
Luis M<sup>a</sup> Pascual

## ■ Argazkiak · Fotografías

Rocío Agudo

## ■ Testuak · Textos

Autoreak · Las autoras

## ■ Diseinu eta maketazioa · Diseño y maquetación

Ibon Sáenz de Olazagoitia

## ■ Itzulpena · Traducción

Vitoria-Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzua  
Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

## ■ Inprimategia · Imprenta

Gráficas Dosbi

## ■ ISBN: 978-84-96845-70-1

## ■ Lege Gordailua · Depósito Legal: LG G 00187-2021



- Programa honen katalogo digital guztiak eskuragarri daude **montehermoso.net** webgunean.
- Todos los catálogos digitales de este programa están disponibles en la web **montehermoso.net**.

Erakusketa-sorta hau Montehermoso kulturunearen eta EHUKo Arte Ederren Fakultatearen arteko lankidetzaren emaitza da. Erakunde biek harreman emankor bati ekin genion 2012an, Leioako Fakultatean ikasitako artista hasi berrien lana ekoiztera bideratuta.

Harreman horri esker, eta orain artekoan, lehen urratsak eman ahal izan ditu artista gazte andana batek, beren lanak jendaurrean erakusteko bide nekezean.

Proiektua kontu handiz zaindu izanak, proiektuan hobekuntza txikiak pixkanaka txertatzeak, eta, batez ere, formula denboran zehar finkatzeak, faktore horien eraginez, ekimena aukera preziatua bihurtu da hasten ari diren artisten lana erakutsi eta balioesteko, eta baita arte-mintegi eder bat ere gure testuinguru kulturalean.

Hasierako erakusketa kolektiboko formatua banakako lau erakusketakora aldatu zen duela urte gutxi batzuk. Horrek lan hautatuak ardura handiagoz jorratzea eta antolaketa- eta produkzio-lan handiagoa eskatzen du, helburu bakarra delarik artista partaideei beren ahalmenak neurtzeko aukera emankorra eskaintzea.

Aurrerapauso horri esker, ikasturte honetan ere lau artista gaztek beren lana eta obra erakutsi ahal izango dute Montehermoso kulturunean, urte osoan garatuko den ekimen batean, zeinaren bitartez egungo ikerkuntza artistikoaren ikuspegi interesgarri bezain anitza eskainiko den, bai eta erakusketa moldeen eta egungo gizartearekin planteatzen dituzten harremanena ere.

La presente muestra surge de la colaboración entre el Centro Cultural Montehermoso y la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. Ambas instituciones iniciaron en el año 2012 una fructífera relación que articula recursos de cara a la producción de artistas emergentes formadxs en la facultad de Leioa.

Dicha relación ha permitido hasta el momento dar sus primeros pasos a un gran número de artistas en el difícil camino de la exposición pública de sus obras.

Así, el cuidado y las pequeñas mejoras que se han venido introduciendo en el proyecto, pero sobre todo el asentamiento en el tiempo de esta fórmula, ha acabado convirtiéndose en una preciada oportunidad para el arte emergente y en todo un semillero artístico para nuestro contexto cultural.

Lo que venía siendo una exposición colectiva, se transformó hace algunos años, en una serie de cuatro exposiciones individuales, exigiendo para ello una mayor responsabilidad en el abordaje de los distintos proyectos, así como un mayor trabajo organizativo y de producción con el único objetivo de ofrecer un fructífero ensayo de posibilidades para los y las artistas que participan.

Gracias a este paso adelante este curso también, cuatro jóvenes artistas van a desplegar su trabajo y su obra en el Centro Cultural Montehermoso en una experiencia que se desarrollará durante todo el año y que ofrecerá una interesante y diversa panorámica de la investigación artística actual, de sus formas de exhibición y de las relaciones que plantea con nuestra sociedad actual.



# Rocío Agudo

## Zaragoza, 1996

### Stay focused

Ekintzatik abiatuta, saiakuntza bat: grabatu, pentsatzeko. Bideoari buruz eta bideoarekin eginiko lana. Neure burua grabatzea, beste batzuk grabatzea, beste batzuek ni grabatzea.

Subjektuaren eta kameraren arteko aurkakotasuna desegiten saiatzen naiz. Birplanteatu egiten dut ikus-entzunezkoen lengoia hegemonikoa.

Mugimendua bilatzen dut, gorputza zaitzea, bestearen larruzalera gerturatzea. Filmatzea ukitzea da.

Zenbait keinu: proiektorea kameraren aurrean, gorputzaren desira bat, biratze bat automatismotik afektura.

### Biografia

Rocío Agudo (Zaragoza, 1996) Arte Ederetan graduatua da, eta Arte Garaikide Teknologiko eta Performatikoa masterra ere egin du, Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik. Jarduera Artistikoen JAI Institutuan (Tabakalera, Donostia) ere jaso du prestakuntza Itziar Okariz, Asier Mendizabal eta Ibon Aranberriren eskutik.

Egonaldiak egin ditu BilbaoArte fundazioan (abian), Center for Basque Studies zentroan (AEB, 2019), Etopia zentroan (Zaragoza, 2019) eta CentroCentro (Madrid, 2020) espazioan.

Besteak beste, Gasteizko Artiumeko eta Zaragozako IAACC Pablo Serrano institutuko erakusketetan parte hartu du.

### Stay focused

A partir de la acción, un ensayo: grabar para pensar. Trabajo sobre el vídeo y con el vídeo. Grabarme, grabar a otros, ser grabada.

Trato de deshacer la oposición entre sujeto y cámara. Me replanteo el lenguaje audiovisual hegemónico.

Busco un movimiento, una fragmentación del cuerpo, un acercamiento a la piel de la otra. Filmar es tocar.

Una serie de gestos: el proyector frente a la cámara, un deseo del cuerpo, un viraje del automatismo al afecto.

### Biografía

Rocío Agudo (Zaragoza, 1996) es graduada en Bellas Artes y máster en Arte Contemporáneo Tecnológico y Performativo por la Universidad del País Vasco. Se ha formado también en JAI, Instituto de Actividades Artísticas (Tabakalera, Donostia), programa facilitado por Itziar Okariz, Asier Mendizabal e Ibon Aranberri.

Ha realizado residencias en la Fundación BilbaoArte Fundazioa (en curso), en el Center for Basque Studies (EEUU, 2019), en Etopía (Zaragoza, 2019) y en CentroCentro (Madrid, 2020).

Ha participado en exposiciones en Artium (Gasteiz) y en el IAACC Pablo Serrano (Zaragoza), entre otras.

# Stay Focused.

## Kamera afektu gisa, afektua kamera gisa.

## La cámara como afecto, el afecto como cámara.

Silvia Martí Marí

*Stay Focused* erakusketak duela urte batzuk hasitako kezka eta prozesuen emaitza diren zenbait lan dakartza. Esan daiteke arlo afektiboaren eta arlo teknikoaren ardatzaren artean mugitzen direla; artistaren hitzetan “[ ] afektiboa dena desira da [ ]. Arlo teknikoak nola esaten digu, eskura ditudan tresnak zer modutan erabiltzen ditudan eta nola eragiten dion gauzak egiteko modu horri ere nire desirak.”<sup>1</sup>

Artista honen piezetan, gorputzaren, gorputzen ikuspegi zatitua gailentzen da; eta ikusleak berriro zatituko ditu; izan ere, egiten dituen mugimenduen, lan bakoitzari eskaintzen dion denboraren eta abarren arabera, zatitze gehiago azalduko dira. Ikusleak lan batetik bestera ibiliko dira, eta ikuspegia, beraz, ez da lineala (zineman bezala), baizik espaziala, eta ordena zatitu eta ausazkoa du.

Kontaketa afektibo-emozional-fiziozkora egokitzeko bideo-grabaketarako gailuaren baliabideak erabiltzen saiatu ordez, Rocío Agudok eragiketa hori alderantziz egitea proposatu du eta, hala, gorputza/larruzala gailu teknologiko-makinetara egokitzea, gailuaren eta nork bere burua grabatzea, erretratatzea ekintza performatiboaren erabilera kanonikoak irauliz.

Rosalind Krauss-ek “Video: The aesthetics of Narcissim” (1976) testu klasikoan zehazten du bideoaren ezaugarri bikoitza; hau da, aldi berean grabatu eta transmititzeko (monitorearen bidez) gai da, eta horrek berehalako feedbacka ematen duen ispilu bihurtzen du, eta nartzisismoaren estetika bideratzen du.

La exposición *Stay Focused* presenta algunos trabajos fruto de preocupaciones y procesos iniciados hace ya algunos años. Se podría decir que se mueven entre el eje de lo afectivo y de lo técnico; en las propias palabras de la artista “[ ] lo afectivo es el deseo [ ]. Lo técnico es el cómo, de qué manera utilizo los instrumentos que tengo a mi disposición y cómo este modo de hacer está también afectado por mi deseo.”<sup>1</sup>


En sus piezas predomina la visión fragmentada del cuerpo, de los cuerpos; y el público volverá a fragmentarlas de nuevo, pues según los movimientos que realice, los tiempos que dedique a cada obra, etc., se ofrecerán nuevos fragmentos. El público transita por las obras, de modo que no se trata de la visión lineal (como en el cine) sino espacial y de orden fragmentado y aleatorio.

En lugar de intentar utilizar los recursos del dispositivo de la grabación de vídeo para adaptarse a la narración afectivo-emocional-ficcional, Rocío Agudo se propone realizar la operación inversa, y adaptar el cuerpo/piel al dispositivo tecnológico-maquinico, subvirtiendo los usos canónicos del dispositivo y de la acción performativa de grabar-se, de retratar-se.

Rosalind Krauss en su clásico texto “Video: The aesthetics of Narcissim” (1976) especifica la característica doble del vídeo, que es capaz de grabar y transmitir (mediante el monitor) al mismo tiempo, lo que le convierte en una especie de espejo con retroalimentación instantánea, facilitando una estética del

1 *Stay Focused*, Rocío Agudo Martínez. Master-amaierako lana, Arte Garaikide Teknologiko eta Performatikoa masterra, 2020. EHU, 10. or.

1 *Stay Focused*, Rocío Agudo Martínez. TFM, Máster Universitario en Arte Contemporáneo Tecnológico y Performativo, 2020. UPV/EHU, p. 10.





Kraussek zehaztu egiten zituen bideoaren ezaugarri berezi horren aurka dauden bideoartearen corpuseko fenomenoak. Horietako batek “ingurunea barnetik kritikatzeko, inguruneaz baliatzen diren grabazioak” aipatzen ditu, eta hori izan liteke *Stay Focused* erakusketaren kausa; izan ere, artistak bideo-kameraren bidez auto-kontaketa/ikustea/erretiratzearen aukerak erakusten ditu. *Stay Focused* erakusketak suntsitu egiten du ispilu fidagarriaren ideia hori, eta “espekulatzeko” gaitasuna erabiltzen du ohi-ko erabileretatik aldentzen diren irudiak, kontakizunak, fikzioak sortzeko.

Planteamendu horretatik abiatuta, badirudi Rocío Agudok teknologia berriek sustatzen dituzten diziplina-aginduak barneratzearen aurkako estrategia bat jarri duela abian, eta estrategia horren bidez, pertsonak modu zuzenekoagoan hartzen dute haien gain sistemarentzako erabilera eraginkorra (Jonathan Crary<sup>2</sup>), kontzientzia eta introspekzioa erabiliz norbanako bereiz eta isolatuen egoizpena sustatzen duen ikuskizunaren logika hausteko.

Rocío Agudok keinua, gorputza makinaren ikuspegira egokitzeko egindako saiakeran, lagatze/kritika bikoitza egiten zaio; nahi gabekoa, edo normalean jabetzen ez garena (Craryk aipatu zuena)<sup>3</sup>, eta nahita egiten duena. Artistak bi aldiz egiten du ikusgarri gorputzak, haragiak, gizakiaren begiradak makinara egiten duen egokitzapen hori.

Bestalde, “Unos cuantos duelos” (Zenbait dolu) ikus-entzunezko insta-

narcisismo. Krauss especificaba fenómenos dentro del corpus del videoarte que irían en contra de esa característica especular del vídeo, uno de ellos habla de “grabaciones que se aprovechan del medio con la intención de criticarlo desde dentro”, este podría ser el caso de *Stay Focused*, donde la artista muestra las posibilidades y límites de auto-narrarse/verse/retratarse a través de la cámara de vídeo. *Stay Focused* desbarata esa idea de espejo fidedigno, al tiempo que utiliza la capacidad “especular” para construir imágenes, relatos, ficciones, diferentes o alternativas a los usos convencionales.

Con este planteamiento Rocío Agudo parece desplegar una estrategia para ir en contra de la interiorización de los imperativos disciplinarios que las nuevas tecnologías propician, a través de la cual los individuos asumen de forma más directa la responsabilidad de su propio uso eficiente para el sistema (Jonathan Crary<sup>2</sup>), aportando conciencia e introspección para contravenir la lógica del espectáculo que propicia la producción de individuos separados y aislados.

En el intento de Rocío Agudo por adaptar el gesto, el cuerpo, a la visión de la máquina, se daría una doble cesión/crítica a ella; la involuntaria o de la que no somos conscientes habitualmente (de la que habló Crary)<sup>3</sup>, y la que conscientemente lleva a cabo. Lo que logra la artista es hacer -doblemente- visible esa adaptación del cuerpo, de la carne, de la mirada humana a la máquina.

2 Crary-k *Las técnicas del observador. Visión y modernidad en el siglo XIX* (Behatzailearen teknikak. Ikuspegia eta modernitatearen XIX. mendean) laneko tesi nagusian arrazoitzen du entretenimendurako gailu eta teknologien azpian subjektuaren kontrol, zaintza eta diziplinarako logika bat dagoela gordeta, eta diskurtso-ezaugarriek ezartzen zaizkiela teknologia berrietan oinarritutako produktuei. Crary, Jonathan, *Las técnicas del observador. Visión y modernidad en el siglo XIX*, Murtzia, Cendeac, 2008 [1990], 22. or.

3 Horren arabera, makinaren mekanismoek modulatu eta modulatzeko dute gure ikuspegia, arreta eta narrazioa.

2 En su tesis principal de *Las técnicas del observador. Visión y modernidad en el siglo XIX*, Crary argumenta que bajo los artilugios y tecnologías del entretenimiento se esconde una lógica de control, vigilancia y disciplina del sujeto, de modo que se atribuyen propiedades discursivas a los productos basados en las nuevas tecnologías. Crary, Jonathan, *Las técnicas del observador. Visión y modernidad en el siglo XIX*, Murcia, Cendeac, 2008 [1990], p. 22.

3 Según la cual son los propios mecanismos de la máquina los que han ido modulando y modulan nuestra visión, nuestra atención y narración.



lazio bat da eta grabatzearen eta grabatua izatearen jolasa planteatzen du. “Unos cuantos duelos” lanak “afektutik” eraikitzea lortzeko saiakera bat dirudi, Vilém Flusser-ek<sup>4</sup> aipatzen dituen automatismoak gorabehera. Izenburuak aipatzen duen “dolu” hitza ez da tolesgabea, irudiak hartzeak dakarren erronkari, oldarkortasunari eta indarkeriari<sup>5</sup> eta doluari egiten baitie erreferentzia, galera batean aurrean mina onartzean, hasitako eginkizunaren ezinezkotasunagatik. Ezinezkotasun hori onartzen da (modu inplizituan edo, agian, jabetu gabe) izenburiaren hautaketan.

Hasierako binomioari helduko diogu berriro. Horren arabera, hemen aurkeztutako lanen planteamendua ardatz afektiboaren eta teknikoaren artean mugitzen da... Lehen kasuak narrazio (autoadierazpenak) alternatiboak eratzeko nahia erakusten du, bigarrena gailuari (haren makina-joskurak ikusaraztea) eta sistemari (haren egitura fikzionatua ikusaraztea) egindako kritika bat da.

Abian den desira bat, abian diren beste ekizpen batzuetan jarraituko duena, artistak dioen moduan, “arreta biguna, leuna, otzana den horri, eraldatua izateko eta eraldatzeko aurretiko joera duen horri jartzeko. Ahultasunetik gure gorputzetera doi daitezkeen maitzetako moduak probatzen ditut, harremanak nola izan probatzen du, azpian jartzen naiz hemendik beste leku batzuk behatzeko. Kameraren aurreko jarreraren berdina da.”<sup>6</sup>

Por otra parte, *Unos cuantos duelos* es una instalación audiovisual que plantea el juego de grabar y ser grabada. *Unos cuantos duelos* parecería un intento de, a pesar de los automatismos a que se refiere Vilém Flusser<sup>4</sup>, lograr construir desde el “afecto”. La palabra duelo del título no es inocente pues hace referencia al reto, la agresividad y violencia implícada<sup>5</sup> en la captura de las imágenes, así como al duelo, en la acepción de dolor ante una pérdida, por la imposibilidad de la empresa acometida. Imposibilidad que es de algún modo asumida (implícita, o quizás inconscientemente) en la elección de este título.

Volvemos al binomio de inicio según el cual el planteamiento en las obras aquí presentadas se mueve entre el eje afectivo y el técnico... El primer caso desvela un deseo de construir narraciones (autorrepresentaciones) alternativas, el segundo es una crítica al aparato (hacer ver sus costuras maquínicas) y al sistema (hacer ver su estructura ficcionada).

Un deseo en proceso, que continuará en otras producciones en curso donde poner, como la artista expresa, “el foco en lo blando, lo suave, lo dúctil, lo que tiene predisposición a ser transformado y a transformar. Desde la debilidad busco, pruebo maneras de amar que se puedan ajustar a nuestros cuerpos, ensayo cómo relacionarme, me coloco debajo para observar desde aquí otros lugares. Es la misma actitud que ante la cámara.”<sup>6</sup>

4 Vilém Flusser-en ustez, makinek sortutako “irudi teknikoak” egoteak –argazkilaritzak ematen die hasiera– errotik eraldatzen du gizartea, paradigma-aldaketa eraginda, eta gailu horiek guztiek gizartearen jokabidea modu magikoan programatzen dute, baina “ergelki automatikoa” den modu batean. Flusser, Vilém. Una filosofía de la fotografía, Madril, Ed. Síntesis, 2001 [1983], 71. or.

5 Kasu honetan atzean dagoen kontua da ea irudiak erabiltzeak berak ez ote duen, bere horretan, nolabaiteko indarkeriarik, Susan Sontag-ek idazi zuen moduan: “[...] Kameraren erabilera oro eraso bat da”. Susan Sontag. “En la caverna platónica”, Sobre la Fotografía. Barcelona, Edhasa, 1981, 109. or.


6 *Ibidem*, p.34.



4 Para Vilém Flusser la existencia de “imágenes técnicas” generadas por máquinas -que la fotografía inaugura- transforma de manera fundamental la sociedad produciéndose un auténtico giro o cambio de paradigma, todos estos aparatos programan entonces el comportamiento de la sociedad mágicamente, pero de un modo “estúpidamente automático”. Flusser, Vilém. *Una filosofía de la fotografía*, Madrid, Ed. Síntesis, 2001 [1983], p. 71.

5 La cuestión subyacente en este caso sería si el propio uso de las imágenes no implica ya de por sí una cierta violencia, como escribió Susan Sontag “[...] Todo uso de la cámara implica una agresión”. Susan Sontag. “En la caverna platónica”, Sobre la Fotografía. Barcelona, Edhasa, 1981, p.109.


6 *Ibidem*, p.34.













# MH 2020-21 UPV/EHU

## **Sala Jovellanos Aretoa**

Arte proiektuak ezagutarazteko programa

Programa de difusión de proyectos artísticos

Programa hau, Arte Ederretako ikasleen proiektuak ezagutarazteko asmoz Montehermoso Kulturuneak eta EHUko Arte Ederren Fakultateak eratu duten lankidetzaz hitzarmenaren baitan kokatzen da. Deialdiak duen helburua prestaketa-aldian dauden artisten proiektuak ikusarazi eta ezagutaraztea da, bai eta ekoizpen- eta prestaketa-eremuen artean eztabaida eta trukerako gune bat sortzea ere, hartara artistei eremu profesionalarekin eta testuinguru lokalarekin harreman zuzena osatzen laguntzeko.

Este programa se enmarca en el convenio de colaboración establecido entre el Centro Cultural Montehermoso y la Facultad de Bellas Artes de la EHU/UPV para la difusión de los proyectos de alumnado de Bellas Artes. La convocatoria persigue visibilizar proyectos de artistas en fase de formación, así como generar un espacio abierto de debate e intercambio entre el espacio de producción y el formativo, estableciendo un vínculo directo con el ámbito profesional y el contexto local.

### ■ **Stay Focused · Rocío Agudo**

2021eko apirilaren 23tik maiatzaren 23ra

Del 23 de abril al 23 de mayo de 2021



